

# MUNDUAREN GURPILLA

Maiz izaten ditugu norperekautan, zera, orrelako pentsamen igeskorrak, astrakto antzera, askotan pillaka burura etortzen direnak, ta arrapatakako bizitza estu au dalata edo, idazteko zaletasuna izana-gaitik ere, idatzi gabe gelditzen diranak; eta belañoa bezelaxe, kea bera baño ariñago etorri ta, une batzuetan idea lauso bezela buruan ibilli ondoren, idazteke, azkar suntsitzen direnak.

Orrelako unetan, sarri izaten ditugu bestelako lanik gabe bizi naiaren opariak, bañan oraingo bizitzak berakin duan estutasunak debekatzen digu gure gogoko bizitza orretatik joatea. Zein nekegarria dan beartsuaren izamena. Aberatsak ba-giña norperaren gogoko gauzetan jarduteko. Zoritxarrez ez gera, ta ba-giña ere, bear bada, aberatsik geienak bezela burgesia ustelean aulduko giñake. Ta iñoiz ez dakit zer litzaken obe: burges oien antzerako bizitza lasai ta egintzaz antzua; ala estua bañan eraginkorra, naiz ta batzuetan norperak izaten dituan pentsamen oiek aidean gelditu, aizeak ezerezteko.

Bañan askozaz ere tamalgarriagoa da norperaren etorkizuna aukeratzeko eskubiderik eza. Ta gaitzerdi, bizi-moduaren bideak ain garratzak ez-palira.

\* \* \*

Iruña'n nago, "*Cafe Iruña*"-ko belador batean, Plaza Castillo aurrez-aurre dedalarik. Neguko egun sargori baten. Noizik peinean egoaizearen firi-firiak matrallak igurtzitzen didalarik. Azkenengo "Euzko-Gogo" dut esku-artean eta Etxeberría jesuitaran "*Nik ez!*", irakurtzeak zenbait pentsamentu igeskor dakarkida.

China'ko ipui bat da guztia; ipui laburtxo bat. Sorkaldeko filosofiaz kutsutua.

Erri guztiak dute edo izan dute beren folkloreko filosofia, orrelako ona ta txarra berezten dakiena. Erri batzuek beste batzuek baño obeto

sendotu dutena. Ozeania'ko ugarte askotan, China'n, Indi'etan eta bai Ameriketa'ko zibilizaziño zarretan arkitzen dira orretariko erri-  
ipuiñak. Maiz, naturaleza bertako gauza askotan arkitzen ditugun bi  
indar dira; gizonen gogoaren izakeratikako txarra ta onaren indar-  
rrak. Gizonaren istintoan sakon dauden bi indar. Indar bi oietariko  
bat paltatuko balitza, gizonak bere ekilibrioa galduko luke. Txarrak  
gabe ez legoke pekatuak, eta pekatuak gabe, gizona ez litzake berean;  
arkituko, istintoak dakarren almenetariko bat aulduko litzake; txar-  
rrak berak ere bizi bearrari errazoa ematen bai dio. Sortzetikako  
pekatu nagusi ori ere orrelako zerbait izan diteke, erri literaturara  
Adan eta Eba'gan sinbolizaturik.

Onutsetik bakarrik ezta bizi nairik; onutsa oso aula da. Seguru  
asko, txarra ez ba-genuke ain tentakorra, gure gogaketetako ona  
aulduko litzake. Ori gertatzen da fisikako legeetan, ori berori da  
politika arazoetan ere gertatzen dana, ta munduak bi naziño aundi  
alkarren etsai izan bearra aurrerapenak lasterrago bultzatzeko.

Erri filosofiarik, garaiak aldatu-ala, beti izan ditu aldatu  
bearrak, aurrerapenak gauzen uste izanak ere aldatzen ditualako;  
gizonaren sikolojia, bere oñarriak lenean izanarren, era berriak eska-  
tzen dute orrela jokatzea.

Filosofiak, sarri, gizon bat izanarren eredu, erriaren uste izanak  
ditu bere oñarritzat, ta konzeptu oiek, aro bakoitzean bere tankera  
izan dute, garai bakoitzeko zientziak eta usteak eskatu izan duten  
neurrian. Orrela dugu Sokrates'en filosofia.

Sokrates giroak bultzaturik mintzatu zan, bestela bere garaiokak  
etzieta ulertuko. Problema bat aztertzen danean, problema dagolako  
izaten da. Orrela, Sokrates'i, orduko bere erriko idiosinkrasiatik sortu  
zitzaien, berak biribildu, era-berritu, egokiagotu ta malla batzuek go-  
ratuta erriari irauli zizkion gogaketa aiek. Ori dala ta, erri bakoitzaren  
esaerak, ipuiak eta gañerakoak, bere muña dute. Orrek banantzen  
ditu erri bakoitzaren zentzunak, ta zentzun oietzaz mintzatzen gera-  
nean, jermaniar mentalidadea, latin mentalidadea, ipartarren menta-  
lidadea edo sorkaldetarren mentalidadea ta abar, erabiltzen ditugu  
gure jardukizunetan.

\* \* \*

Onak, berriz, bere alderdia du, ta ain zuzen ere bere alderdi ona.  
Ta, gizonagan, onak txarraren beste indar ez balu, gure mundu one-  
nak aspaldi egin zuan.

Bizitza sortu zuen lenengoko zelulak ere, berentzako giro egoki  
batek sortu zituan. Eboluziñoak ere or ditu bere oñarriak. Izadiaren  
zear, giroak aldatuz, asimilatu ezin izan ziran biziak, il-zorira joan

ziran. Zoolojian aunitz abere ditugu bizitzaren magaletatik galdu ziranak.

Gizonak oraindañokoan lortu du naturalezaren aldakuntzak eskatu ala, bere bizi-bearra irauneraztea.

Errazoiaren bideak indartuaz asi zirelarik, gizonaren zentzuna geituaz etorri da. Bere izadiaren gauzetariko bat: errazoiak pentsamenaren egoak txertatu zitzaiola, eta orrek, eriotza ondorerako zerbaiten bearra edo naia.

Berekiko gogamenetan sakonduaz, misteriorik-misterio zamalkatu izan du; berakin ditularik ona ta txarraren burrukak. Ezkutu ori berori ez ote da naikoa errazoi, bere ulerkaiztasunean, aruntzagoko zerbaiti begiratzeko? Izaditik txertaturik daramagun zerbait orren ezkutuak, ez ote digu ipiñi bizirik barne burruka ori? Lauso artean zerbait estaltzen da. Ta ori gabe ez zegon gizonaren alderdi onarentzako indarrak ere. Bakoitzak daroagun barruko burrukak gordetzen gaitu bizi onetan aurreruntz.

Baldintza auetan; onaren paltaz, askok beren buruak erailduko lituzteke; ta txarraren paltaz, nagikeriak eta bizi-pozik ezak etengo luke gizonaren bizitza. Zentzunetik eta osasunetik neurri xamarrean dabilen gizonak, txarra ta ona bere batean izango ditu. Ta beste asko, kanpoko itxurok gorde arren, ikustekoak izango lirake beren barruko burrukak.

Txarrarentzako barruko arra, misterioz beterik arkitzen da; ar ori: kontzientzia da. Ta, jakiña, ba-dakigu kontzientziako parte asko zelan edukatzen danaren gora-beran dagola. Bañan, baita, jakifiekoa da, bi gizon berdin edukatuak, beti ez direla berdiñak izaten kontzientzia kontu orretan. Ikusi besterik eztago familia batetik nolako anai ez-berdiñak ateratzen diran.

Gizonaren izakerako misterioetan sakontzeak berak, orduan eta geiago sartzen gaitu ulertu eziñeko gauzetan. Orregaitik, emen ere, garai bakoitzak bere uste izateak ditu. Geien bat ere, zientziaren aurrerapenak arkitzen dituan bide berrieri loturik. Ortik datorkigu: "*Doctores tendrá la Santa Madre Iglesia, que te sabrán responder*", esaera ori.

Bañan Heard, Simpson eta Teilhard de Chardin'en bideak eztira atzokoak, atzokoeri loturik egonarren.

Gizonagan arkitzen diran pentsamenaren burruka auek, errietan ere berdin azaltzen dira. Nunbait, izamenean billatu bear beren errazoiak.

\* \*

Erruki ditugu txarraren indar geiago duten erri aiek. Bañan onaren aldetikoak, kontzientziaren altzo nasaian lo daude. Ori adierazten

digu Etxeberria'k "Euzko-Gogoa"-n dakarren China'ko ipuiak. China, bere erlijio ta filosofietan etzanda dago-edo, gaur bear bada obeto legoke, etzanda egoan. Ameriketa'ko Maya'k eta Azteca'k ere orrela egon ziran, ta europarrok kendu genizkien bartzak. Ejito'ko zibilizaziñoa ere orrela galdu omen zan. Aientzako gu izan giñan beren kulturaren zapaltzalleak. Ta egia esan, besteak txartzat egin da, amaika gerra eman dugu europarrok. Zer dan zillegi ta zer eztan, ez de erreza jakiten. Bañia ukatu ezin duguna da, beste kontinente guztiak geuk zapalduak izan dirala, Indarrez edo zentzunez aldatuaz menderatu arte; lo zeudenak eta esna ziranak.

Inperio egarriz bizi izan diran erriak, ezтира berez izan erri ononak, ta orain, barruko arrak ez bañan kanpoko etsaiak bildurtzen gaitu. Lenago gure menpeko izan eta orain gu baño gorago arkitzen diran erriak beldurtzen gaituzte. Gure pekatuen ordañen bildurrez gera. China'k zapalduko gaituala? Napoleon batek aspaldi eman zien aitzen Europa'n batasunaren aurka zebiltzaneri, esanaz: "Ikusiko duzute China erraldoia itzartzen danean." Okerrrik egin ez ba-genuan, munduan gauza ona bakarrik zabaldu izan ba-genuan, orain ez giñan etsaien bildur izango, ez orixe.

Bañan ezta ori bakarrik. Chinarrak ere kontzientziaz ornituak izango dira noski; gutxi edo asko, alderdi ona ere berekin izango dute. Guk, europarrok, kristauak geranok, beti pentsatu dugu geu bakarrik gerala munduan onak, geu errazoidunak eta geu guztien jabe. Zientziaren aurrerapenak eskatu diguten aldakuntzak ausnartuta gero ere, uste dugu geu bakar-bakarrik gerala errazoidunak. Pearl S. Buck gutxi izan dira gure artean, beste erriak aintzakotzat artzeko.

Bañan beltzagoak ba-ditugu geure gain. Geuk egindako makiña askoz azkarriagoa dugu. Geu bere menpeko biurtu bear gaitu, kontzientzia bako makiña onek.

\* \* \*

Aurrerapen onek errotik eten ditu gure moldeak. Makiñaren zientzia, gizartearena baño bizkorrago doa; sarri, Alexis Carrel, Ortega y Gasset eta beste askok aitzen eman diguten bezela.

Bestaldetik, mundua geroago ta azkarrago biztanlez gañezkatzen dijoa ta aurrerapen oiek bearrezkoak ditugu guziok biziko ba-gera. Bañan, aurrerapen auek, erri bakoitzaren idiosinkrasia berezia gordetzea ukatzen dute. Errien arimak nasturik dabilta. Eboluziñoan orde z kataklismoa ote dan ere. Orrelako giro urduria dator kio gizonari, ta kataklismo ori, ez jakin bear dan neurrian irunsi al izango duan: zortzikotik *jazz*'era, Velázquez'engandik Van Gogh'engana,

sagardantzatik *rock and roll*era, Descartes'engandik Kierkegaard'engana, Adan'dik *oreopithecus*'era...; aldia aundiak daude ain denpora gutxian aldatzeko.

Munduaren gurrilla biraka dabil. Eta orrelako gauzak ikararik egiten ez diona ere, ez jakin bere-berean dagoan.

Uste izanak aldatu dira; filosofia ere bai. Filosofia bat bide dalarik jarri izan dira bizitzaren iritziak, agian bizi bearrenak, eta orrek eman izan dio gizonari bearrezko itxaropena, mundu ontatik baikortasunean igarotzeko bestetarako izan ez bada ere. Gizonaren pentsamenak eta iritziak orain baño lenago ere izan dituzte aldakuntzak; ez ain denbora laburrean, noski.

Etsipena ta itxaropena, or beste bi indar errazoietan bakarrik deskantsatzen eztiranak. Auek ere neurtzekoak lirake.

Askorentzat problema auek oso sinpleak dira, guzia erabagita dute; bañan nik ez; nik ez bai dut zerura osterarik egin.

Orrelako pentsamenetan murgildurik jarri nau, garrantzi bageko ipuintxo batek. Bañan, garrantzi bagekoa ote? Badu ipuin orrek num ikasi.

\* \* \*

Oartzeke, eguzkia jetxiaz zijoan. Plaza Castillo'n, etxeen keriza luzeak moteldu dituzte len bizi-bizi agiri ziran koloreak. Itzal oiek, nerekiko irudimenean, Oswald Spengler'ek ikusten zuan Sarkaldearen gainbera bezela nabaitzen dituda; gizonak bere aurrerapenen teknikakin ito bearrean.

Lazgarria zait orrelako pentsakizunak azaldu bearra; bañan gaurko giroaren arnasaizeak dira, uxatu ezindako arnasaize indartsuak.

Alperrik izango litzake orrelako indar baten aurka jardutea, ta mingarri bada ere, idea asko aldatu bearrean gaude. Ala ere euskaldunok, geure mendi artetik mundua txikiagoa ikusten dugun euskaldunok, geure itsumustuan besteen onik ere ikusi nai ez dugularik, alkarrenganako zapukerian bizi geralako.

Gureari eutsi? Ori bai. Aldan guziari eutsi, baña asko ditugu erbesteko aizeak ikutuak, geienak noski, ta ori ere ezin genezake ukatu. Mundukoak dira eta mundukoak gera.

Gu, "*Geografia*" izena euskerara artu edo ez-artu eztabaidaka gabiltzan artean; gure erria, Ameriketa'tik bueltan datorren, Afrika'ko beltzen oitura asko artzen ari zaigu. Ta alperrik guk nai ez izan, ala da.

Gizonaren bizia laburregia da alkarri mutur joka ibiltzeko. Usteak, uste dira; eta guztiok gera, geure ez-jakin gorrian, ona ta txararren jabe...

Iruña, gure uri nagusia, illundu da, nere barneko kezka ukakor-  
rrak bezela. Bañan pesimismo auen barruan, adiskide euskeltzale ba-  
tzuekin biltzekotan naizela ta, argi apur bat usmatzen dut. Unerik  
etsigarrienetan ere beti agertzen zaigun itxaropen urri orrek ez al  
gaitu ifioiz abandonatuko.

SAN MARTIN'DAR YON.

